




Ernio mendi lasterketa egingo dute bihar goizean

TOLOSA ▶ Aralarko Adiskideen eskutik, 2003 urteaz geroztik bi urtez behin antolatzen dute

MARKA ▶ Fernando Etxegaraik duela bi urte ezarritako denbora (1:26:52) gainditzen saiatuko dira ▶ 3



I. TERRADILLOS

Obeki izan da 24.000 euroko irabazlea

TOLOSALDEA ▶ Tolosaldea Garatzen-MCC Enpresa Ekimen Berritzaileak Sortzeko Lehenengo lehiaketako garailea izan da ▶ 3

TOLOSA ▶

Aitzol Euskaltegiak 'Mintzalaguna' proiektua abiaraziko du

Euskaldun berrien motibazioa eta erabilera indartzea izango du helburu ▶ 2

LEITZA ▶

Igandean hasiko du liga Aurrera futbol taldeak

30 partida jokatuko dituzte denboraldi osoan zehar, 16 talderen aurka ▶ 7

PEPA BOJO ▶ PSIKOLOGOA ETA SEXOLOGOA

«Egiten duguna baloratu eta gure bizitzaren jabe izatea lantzen dugu»

Bojok Villabonako Udalak antolatutako autoestimu tailerra emango du ▶ 4



NEREX

1962-2007
Lentzeria

Gizonezko eta emakumezkoentzat

LIKIDAZIOA
Azken errematea
%40 %50 eta %70eko
beherapenak!

Pijamak • Kamisoiak • Kamisetak
Batoiak • Pikardiak • Tangak • Bodiak

Errementari Kalea, z/g • TOLOSA • Tel.: 943 67 16 30

hitza
argazki
lehiaketa



bidali udako
oporetako
argazkia

Sari
nagusia

Mendexa-Lekeitiko
VILLA ITSASO hotelean
bi pertsonentzako
asteburua.



2. saria

Talasoterapia
Zelai
ZUMAI A

Zumaiako **TALASOZELAI**
tarasoterapia zentroan
bi pertsonentzako zirkuitua.

3. saria

Tolosako **DENAK** tabernan
lau pertsonentzako afaria.



ARGAZKIAK NORA BIDALI
▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
▶ Postaz:
Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitza,
Araba etorb. 5. atzea • 20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosaldeko eta Leizaldeko
HITZAREN egoitzetara ekarri
OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info

EUSKARA ▶

'Mintzalaguna' proiektu berria abiaraziko du Aitzolek

NOELIA LATABURU

Aitzol Udal Euskaltegiak *Mintzalaguna* proiektua abiaraziko du 2007/08 ikasturtean. Hain zuzen, hala eman zuten jakitera atzo arduradunek ikasturtearen aurkezpenean. Bakarne Telleria Aitzol kooperatibako ordezkariak azpimarratu zueenez, «helburua euskaldun berrien motibazioa eta erabilera indartzea da eta euskara ikasten ari direnei ikasitakoa eguneroko bizitzan txertatu ahal izateko guneak eskaintzea». Halaber, euskal hiztunekin elkartzeko modu bat izango da, asteako ordubetez.

Proiektuak Udalaren laguntza jaso du eta doakoa izango da; horretarako «euskara dakitenen laguntza» behar dutela

Euskaltegiak ekitaldi ugari antolatuko ditu 25. urteurrena dela eta, eta ikasturteari «eskaintza zabalarekin» ekingo dio



Ezker-eskuin: Iñaki Azaldegi, Martxeli Sagastume, Ainhoa Etxeberria eta Bakarne Telleria. N. LATABURU

2007/08 IKASTURTEA ▶

HAINBAT DATU

Matrikula epea.

Hilaren 21era bitarte. Izena ahalik eta azkarren ematea gomendatzen dute.

Ordutegia.

10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

(Rondilla kalea, 34-B. 3. a).

Harremanetarako.

943 651006 eta 943 652343 edo aitzolue@tolosakoudala.net.

oharrarazi zuen Telleriak, deialdi berezia eginez. Programa honen baitan, hainbat egitasmo ikastaro, hitzaldi, antolatuko dituzte (ikasleari modu natural batean hitz egiteko aukera emanez).

Martxeli Sagastume Aitzol Udal Euskaltegioko zuzendariak ikasturteari buruzko xehetasunak eman zituen. Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi izan zituen «Udalari, ikasleei eta irakasleei». Halaber, ikasturtearen «eskaintza zabala» aipatu zuen, «bai maila aldetik, bai erritmo aldetik, baita metodologia aldetik ere». Honekin batera, autoikaskuntzaren aukera indarrean dagoela gogoratu zuen.

Hil honetan, Kultur Astea

Duela 25 urte, euskaltegia jaino zenetik, «aldaketa ugari» izan direla ere aipatu zuen Sagastumek, «egoitza, arlo pedagogikoa, irakasleak zein publizitatea bera». Hori guztiari gainbegiratu emateko, Aitzolek Kultur Astea antolatu du, hilaren 17tik 23ra. Batetik, argazki zaharren erakusketa egingo dute. Horretarako, «euskaltegiaren aritutako eta garaiko argazkiak etxean gordeta dituztenek ekar ditzatela» eskatu dute.

Bestetik, Aitzolen aritutako ikasle eta irakasle guztiekin bazkaria egingo dute Zerkausian, hilaren 23an, igandearekin. Bazkarirako izena emateko epea ireki dute dagoeneko.

AINHOA ETXEBERRIA ▶ EUSKARA ETA HEZKUNTZA SAILEKO ZINEGOTZIA

«Jendea animatu nahi dut hainbeste maite dugun hizkuntza ikastera»

Bederatzi urte inguru daramatza Ainhoa Etxeberriak Tolosan (Azpeitia, 1969). Lehen ikasturtea du Euskara eta Hezkuntza saileko buru bezala, iragan maiatzeko hauteskundeak geroztik. Euskara «egunerokotasunean landu beharreko» dela zerbait dela dio.

Nola heldu diozu erronka berriari?

Oraindik dena berria da niretzat. Ikasten ari naiz eta aurreko urteetan egin duten lana erakusten ari zaizkit irakasleak. Batez ere jendea animatu nahi dut hain maite dugun euskara ikastera eta euskaltegiara etortzera. Gure aldetik, erraztasunak emango diegu guztiei.

Zeintzuk dira ikasturte honetarako prestatu dituzten proiektu nagusiak?



N. L.

Euskara gizartean dago, ez da beste alor batzuen kasuan bezala.

Guk aurreko urteetan hasitako proiektuei jarraipena emango diegu eta badira berri batzuk ere, haurtzaindegian bi

gela jarri ditugu, esaterako. Egia esan, ni azpeitiarra naiz eta bizitzako alor guztietan erabili izan dut beti euskara, bai eskolan, bai familian,...

Duela bederatzi urte inguru Tolosara etorri nintzenean, harrituta geratu nintzen kalean erdara asko entzuten zelako, batez ere haurren artean. Urte hauetan lan handia egin da eta aurrerapenak izan dira baina oraindik asko dago egiteko.

Eta nola lor daiteke?

Batetik, orain arteko lanari jarraipena ematen saiatuko gara. Halaber, etorkinen kasuan erronka bat dugu. Konzientziatu behar ditugu hizkuntza ikastea gizarteratzeko modu garrantzitsua dela. Gai etorkinaren aldetik, baita bertakoaren aldetik ere esfortzua egin beharko litzateke.



ZIZURKILGO UDALA

Gora Zizurkilgo jaiak!
Zorionak eta ondo pasal!

Tel.: 943 69 10 12 • Teodoro Herrandonea, 6 • 20159 Zizurkil

www.zizurkil.com

**KALE KANTOITIK ▶
JOXEMI SAIZAR**

Mendian
gora...

Aldapa gora egiten zaizkio askori hasiera guztiak, opor ondorengo lanerako itzulera adibidez. Irailak urtero oparitzen dizkigun udako luzapen egun horietako bat aprobetxatuz, hondartzan hasiko da HITZA-ko sail berri hau, urtean zehar asteroko kronika modukoa egiten saiatuko dena. Lanean hasteko bada toki desegokiagorik!

Ernio gora eta behera presaka ibiliko dira bihar zenbait korrikalari. Mendizalatasuna ere desafio eta lehia bihurtze horrek jarraitzaile ugari ditu. Bada denetarako jendea!

Pirinioetan gora eskualdeko makina bat mendizale ibili gara uda honetan, baina horietako bat, tolosarra, ez da etxera itzuli. Mendiak naturaz eta kirolaz gozatzeo eskaintzen digun aukerarik batera, tarteka, horrelako zerga ere kobratzen du. Ingu-rukoentzat laggarriagoa da heriotza norberak erabakitak denean. Duela gutxi beste tolosar batek egin bezala.

Himalayan eta beste mendi batzuetan gora hildako zenbait euskal mendizalaren bizitza eta heriotza jaso du Ramon Olasagasti kazetariak *Mendi minez* liburu gomen-dagarrian. Informazio bilketan eta erredakzioan lan izugarria egin du berrobitarrak. Tragokatan pixkanaka edateko ekoizpena da, gogorra bezain ederra.

Orian gora eta behera arraunean ari dira egunotan Gure Txokoa eta Txinparta elkarteetako zuzendaritzetako kideak. Kexan dira bate-lak, halako pisua eramaten ohitu gabe. Ez dira igandean Kontxan izango, ez. Oraingo. Ikusmina piztu duen desafioa ari dira prestatzen hila-ren 16rako. Trabesak mar-txan dira. Bazkaria eta musi-ka ez dira faltako kaleko festa osatzeko.

Eta azkeneko gora. Gora auzo eta herri txiki-tako festa! Bada non aukeratu aste-buru honetan.

TOLOSA ▶ KIROLAK

Marka berriaren bila, bihar, Ernio-ko mendi lasterketan

Aralarko Adiskideek antolatzen dute lasterketa 2003az geroztik, bi urtez behin; aurreko edizioan Fernando Etxegarai beratarrak ezarri zuen marka berria

IÑIGO TERRADILLOS

110 lagunetik gora eman dute izena Aralarko Adiskideek biharko antolatu duten Ernio-ko mendi lasterketan. Guztiak ere, 10:00etan abiatuko dira Triangulo plazatik Ernio helburu dutela, eta duela bi urte Fernando Etxegarai beratarrak ezarritako marka (1:26:52) izango dute jomuga.

2003an hasi zen antolatzen Tolosa-Ernio-Tolosa lasterketa Aralarko Adiskideak elkarteak, 75. urtemuga zuela eta. Bi urtez behin egiteko asmoarekin sortu zuten, beraz, aurtengoa, antolatzen duten hirugarren proba da. 2:07:14 izena jarri zioten probari, Joxe Mari Urteaga tolosarrak 1944an egindako marka oroituz. 60 urteren ondoren, egin zen lehenengo proban 37 minututan jaitsi zuen, Garinek. Eta duela lau urte be-lar egindako denbora jarri zio-



Fernando Etxegarai izan zen 2005eko irabazlea. IMANOL GARCIA

ten izen bezala lasterketari, hau da, 1:30:14. Aurten, berri-z, izena aldatu diote, eta aurreko edizio-ko irabazleak ezarritako marka jarri dute, 1:26:52, alegia.

Mendizaleek Ernio gailurre-raino egin beharreko lasterketa 20 kilometro luzerakoa da, eta 2.000 metroko desnibelari aurre egin behar izango diote.

Ibilbidea markatu dute antola-tzaileek, azkarrena haien uste-tan: Berrano, Martin txiki, Mala-ko eta Kupitu; dena den, bakoitza nahi duen tokitik igo eta jaitsi ahal da.

Lau anoa gune jarriko dituz-te: 5., 10. eta 15. kilometroetan, eta helmugan. Ibilbidea osatze-ko gehieneko denborak ere ezarri dituzte: 2 ordu gurutze-

raino, eta 3 ordu eta erdi proba osorako; denbora horiek gain-dituen lasterkaria antola-kuntzaren babesetik kanpo geratuko da, eta ez da kontuan hartuko sailkapenerako. Sari banaketario dagokionez, 13:30ean izango da, Triangulo-an. Usabal kiroldegian dutxa zerbitzua ere egongo da parte-hartzaileentzat.

250 parte-hartzaileko muga jarri dute Aralarko Adiskideek, eta gutxienez 150era iristea espe-ro dute. Oraindik izena eman daiteke, Tolosaldea Tourren (Santa Maria plaza, Tolosa. 943 69 74 13. www.tolosaldea.net) edo ernio2007@hotmail.com-en, 15 euro ordainduta 2101 0152 6100 0079 6045 kontu ko-rronte zenbakian edota ma-haian bertan proba egunean eginaz gero, izan ere, Triangu-loan 09:15ak arte izango dute horretarako aukera lasterka-riek.

EKONOMIA ▶

24.000 euroko saria jasoko du Obekik

I. Terradillos ▶ Obeki enpresak irabazi du Tolosaldea Garatzen-Mondragon Corporacion Cooperativa Enpresa Ekimen Berritzaileak Sortzeko Lehe-nengo Lehiaketa. 24.000 euro-ko saria enpresa plana presta-tu eta proiektua martxan jar-tzeko gastuetan laguntzeko erabiliko dute. Ekimen hau MCCk alor honetan eskualde-an burutu duen lehena da, eta Tolosaldean enpresa jarduera berritzailea bultzatzeko helbu-ruarekin dator. Irudian, Javier Valls (MCC), Jokin Bildarratz (Tolosaldea Garatzen) eta Iñigo Otegi (Obeki Innove), i. t.



iragarki laburrak ▶

LANA
Zaintzailea. Emakume euskalduna behar da etxeko lanetarako eta 2 ume zaintzeko. 656 76 64 39/ 943 67 54 89.

GALDUTAKOAK
Txakurra. Espaner Breton arrazako txakur txuri-marroia topatu dute Gaztelun. 1-3 urte bitartekoa. Txiparrik gabe. 665 71 21 88.

GARAJE EKIN
AUTO KONPONKETA
Ondo pasta jantik
Ebarrena auzoa, 15. poligonoa
Tel-Fax: 943 69 26 84
ZIZURKIL

ELOLA
bede ALTZARIAK
• Etxeko altzariak.
• Ordenagailuz egindako proiektuak. Tel.: 943 65 29 01
• Armairu enpotratuak neurcirra. Lizardi poeta, 2
10 egiteko eta atsedean hartzeko onena TOLOSA

CATALAN AZULEJOAK
Portzelana • Gres
Harri naturala
eta imitaziozkoa
Europar ereduak
Erakusketa handia
BILTEGIA:
Asteasu errepeida, K 1200 • 943 69 21 56 • 687 85 83 63 20150 ZIZURKIL

JAIK ▶



Zizurkilen ez ezik beste hainbat herritan ere jai giroa izango da gaur

Erredakzioa ▶ Haurrentzako ekitaldiak izan ziren nagusi atzo Zizurkilen, Elbarrenako jaietan. Goizean zehar, esaterako, zezen mekanikoa, puzgarriak eta ziklomotrizitatea —argazkietan— izan zituzten. Gaur, berriz,

Zizurkilen ez ezik beste hainbat herritan ere festak izango dituzte. Alkizan, Bedaion, Elduainen, Tolosako Izaskun auzoan eta Lizartzan gaur hasiko dira festak eta gehienetan igandera arte iraungo dute. Beraz jai gi-

rorako gogoa dutenek badute aukera asteburu luze honetarako. Aipatzekoa ia herri guztietan badela sagardo dastaketa egiteko aukera, horrelako ekitaldiek arrakasta izaten duten seinale. I. GARCIA

PEPA BOJO ▶ PSIKOLOGOA ETA SEXOLOGOA

«Egiten duguna baloratzea eta gure bizitzaren jabe egitea lantzen dugu»

Pepa Bojok Villabonako Udalak antolatutako autoestimu tailerra emango du

IMANOL GARCIA

Villabonako Udalak autoestimu tailerra antolatu du, doan, emakumeei zuzenduta urrian eta azaroan zehar egiteko. Hilaren 10etik 21era dago aukera izena emateko. Ongizate sailean egin behar da, 943 693925 zenbakian. Pepa Bojo (Valentzia, Herrialde Katalanak, 1962) psikologo eta sexologoa emango du tailerra. Urteak daramazki emakumeekin lanean.

Zer landuko da tallerrean?

Ikusiko dugu zer den autoestimua. Nola indartu dezakegun autoestimua, landu daitekeen zerbait baita. Zertan oinarritu daitekeen benetako autoestimua. Emakumeekin lana egitean, gizaratek eta genero hezkuntzak gure autoestimua nola baldintzatzen digun modutik abiatzen gara. Zehazki, onik

egiten ez digun rol edo aldeak ikusten ditugu.

Egun gizaratean nola baldintzatzen dira rol horiek?

Gure gizaratearen oinarria patriarkala da eta oraindik barneratuta daukagu balore asko. Oinarria bera dira harreman jerarkikoak eta botere-harremanak. Horiek erabiltzen dira pertsona bakoitza kokatzeko, botere-harremanetan, goian edo behean. Eta emakumei mendetasunean jarri izan zaigu. Hori da gure kultur eredu eta hortik aurrera ikasten eta barneratzen dira zenbait jarrera, esaterako, etsipena, bakoitzarengan ez pentsatzea, sakrifizioa, bakoitzaren ahalmenearekin ez konektatzea... Guzti hori botere-harreman jerarkizatuetatik eratorzen da, non emakumea ez den onartua eta baloratua izan.

Paradoxikoki, gizarate patriar-

HITZA

kal horren iraupenean emakumeek ere parte hartu dute.

Kultura patriarkala barneratuta dago bai gizonezkoetan eta bai emakumezkoetan. Eta emakumeek, igorle moduan, jasotako kultura hori erakutsi dute. Beraz, lehenengo kontzientzia hartu behar dugu jaso dugun kultura horrek zenbaiteraino ez gaituen utzi garatzen eta ikusi ere nola jarraitzen den

kultura hori transmititzen. Bestalde, egun kontraesan andiko egoera batean bizi gara. Alde batetik, rol tradizionalak daude, eta bestetik, egin nahi duguna, eta horrek kontraesana eta kulpasortzen du. Gizonezkoetan ere bai. Aldaketa prozesu batean beti ematen dira horrelakoak.

Ikusten duzu pausorik ematen denik gai horietan?

Bai, hori ezin da ukatu. Hainbat esparrutan aukera berdintasunak errealagoak dira. Ez guztiz, lanaren esparruan oraindik diskriminazioa ematen baita. Baina aldaketak ari dira ematen: emakumeak independenteagoak izatearena, lehen pentsaezina zen zenbait lanetan aritzea... Gazteen artean ikusten da berdintasun maila handiagoak direla harremanak, baina oraindik gelditzen dira barneratutako hainbat jarrera. Askok aurreratu da, baina gauza asko findu behar dira.

Tailerri dagokionez, nori zuzenduta dago?

Edozein adinetako emakumetzat zuzenduta dago, autoestimua gaia emakume zein gizonezkoek berrikusi beharrekoa baita. Askotan autoestimua oso gauza hutsaletan sostengatzen da, gauzak edukitzea edo ahalmene ekonomiko jakin bat izatea, adibidez. Baina, berez, autoestimua da bakoitza bere burua ezagutzea eta ikustea zer ahalmene eta zer balore ditugun eta gustatzen ez zaiguna ere onartzea. Eta gero nola gobernatu bizitzan gertatzen zaizkigun gauzak, autoestimu hori gutxitu ez dadin. Gizaratean dauden rolagatik emakume askotan ikusten da ez dutela bere burua behar bezala aintzat hartzen. Horregatik bakoitzak egiten duena aintzat hartzea eta bere bizitzaren jabe egitea lantzen dugu.

Zer egingo duzue tallerrean?

Ez da ikastaro teoriko bat. Guztiek hitz egingo dute, eta partekatu ahalgo da, iritzia eman, gauzak kontatu... Ariketak ere izango dira pertsona bakoitzak sentitzen den moduari buruz hausnartzeko. Eguneroko bizitzarekiko ahal den gertutasun handiena eta ahal den partehartzaileena izango da.

Pasus Enea

JATETXEA

Tel.: 943 249 775
Erniobeia, 7 • 20150 Zizurkil
pasus@pasusrestaurante.com
www.pasusrestaurante.com

LEABURUKO OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea izan ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

ALEGIA ▶

Juani Alkortaren margolanak iraila bitarte ikusgai

Alegiko jubilatuen tabernan udan hilabete batez itxita egon ondoren, berriz ere hasi dira hilabete bakoitzeko erakusketa desberdinak eskaintzen. Kasu honetan, irailan zehar Juani Alkortaren margolanak daude. Duela 8 urte inguru hasi zen margotzen eta gutxinaka ari da zizurkildarra margolan ezberdinak egiten. Asteartetik igandera arte daude ikusgai.

BEDAIO ▶

Bedaioko 'Ingurutxo' etzi, festen baitan

Bihar Bedaioan 16:30ean haurrentzako jolasak, malabarak eta buruhandiak izango dira. Gauerdian, berriz, Kupa taldea izango da. Etzi, berriz, 18:00etan herri kirol jaialdia dago, eta Irigoien harrijasotzailea eta Mendizabal, Urki eta Aierbe aizkolaria izango dira. Ondoren, Bedaioko *Ingurutxo* ikusteko aukera izango da. Gauera arte daude ekitaldiak.

AMEZKETA ▶

Igaratzako meza datorren asteko igandean

Hilabetero bezala, Aralarko Adiskideak elkarteak meza antolatu du Igaratzako ermitan. 12:00etan izango da, hilaren 16an. Urrian ere izango da, 7an, hain justu. Lazkaoko beneditarrek ospatzen dute meza.

PILOTA ▶

Bengoetxea VI.a Zarautzen ariko da bihar

Titin III.a eta Lasa III.a Asperen aldetik eta Bengoetxea VI.a eta Begino Asegarceren ordezkari gisa goi mailako norgehiagokan ariko dira bihar Zarauzko Aritzabatalde pilotalekuan. Partidak ikusmina sortu du eta giro polita espero da frontoiko harmailetan. Asegarcen modako bikotea den Bengoetxea VI.a eta Begino, nahiz eta gazteagoak izan, handiak dira eta irabazteko gai direla erakustera irtingo dira.

AMEZKETA ▶ XIX. JOXEAN TOLOSA TXAPELKETA

Bertako bi pilotari ariko dira gaurko eta biharko finalerdietan

Jaunarena kadeteetan eta Telletxea gazteen lehiatuko dira, «maila orekatua» izaten ari den buruz buruko txapelketan



Amezketako pilotalekuan jokatuko dituzte finalerdiak, gaur eta bihar 21:00etatik aurrera. ASIER IMAZ

NEREA URBIZU

Amezketan XIX. Joxean Tolosa Pilota Txapelketa aurrera doa; finalerdietan ari dira eta aurtun eskualdeko bi jokalaririk iritsi dira: Leitzako Jaunarena kadeteen mailan, eta Albizturko Telletxea gazteetan. Gaur eta bihar izango dira partidak.

Antolatzaileen esanetan, «aurten oso parekatuta daude hiru mailak: nafarrak eta gipuzkoarrak daude maila guztietan». Kadeteen eta nagusien mailan ziurra da nafarren eta gipuzkoarren artekoa izango dela; gazteenetan, berriz, hori gerta daiteke, aukera badago.

Antolatzaileek kadeteetan Jaunarenaren jokoa azpimarratu dute, baina «irabaziz gero, favoritoa ere den Jauregiren aurka jokatu beharko du, eta lana egin beharko du». Gazteen artean «oso berdintua da maila, eta ez dago argi

AEBetara eskualdeko bi

Gaurtik aurrera San Frantziskoko (AEB) euskal etxeetan Euskal Selektzioak hainbat pilota partida jokatuko ditu, Munduko Pilota Batzarrak antolatutako I. Euskal Pilota Txapelketaren baitan, hain zuzen ere.

Bertan Tolosaldeko bi pilotarik hartuko dute parte: Unai Garmendiak (Zazpi-Iturri) eta Ugaitz Renobalesek (Aurrera-Saiaz). Biak Open formatuan ariko dira, hau da, afizionatuek eta profesionalak jokatuko dute nahastuta. Elite eta profesionalen arteko maila bezala uler daiteke.

Euskal Selektzioarekin batera, eskuz-binaka eta open formatuan, Euskadi 2, Mexiko, Frontis, Asegarce eta ASPE ariko dira. Pilotan ariko

direnak, berriz, Aitor Mendizabal, Jon Landaburu, Mikel Urrutikoetxea, Gaizka Lopez, Iñigo Irureta, Unai Garmendi, Joseba Olo, Egoitz Amanategi eta Ugaitz Renobales.

Guztira zazpi selektziok jokatuko dute txapelketan: Euskadik, NABOK (AEBtako euskal etxeen elkarte), Venezuelak, Boliviak, FEVAk (Argentina) eta Txilek.

Txapelketa honetarako pilotariak aukeratzeko Kepa Arroitzaregi aritu da. ◀

PARTIDAK ▶

GAUR, 21:00ETAN

Kadeteak.

Jaunarena eta Madariaga.

Gazteak.

Epelde eta Galartza.

Nagusiak.

Jauregi eta Errarte.

BIHAR, 21:00ETAN

Kadeteak.

Jauregi eta Arrieta.

Gazteak.

Bergera eta Telletxea.

Nagusiak.

Arrastoa eta Landiribar.

zein irits daitekeen finalera. Ondo ibili dena Arbizuko Galartza da, kontuan izanda gainera, jubenilen artean urte bat gazteagoa den bakarra dela».

Helduenetan Jauregi da favoritoa gaurkoan, eta biharkoan, berriz, Arrastoa (Txaruta). «Osotuena-edo, Jauregi ikusi dugu, baina Arrastoa buruz burukoan aritzeko ohitura handia dauka, eta Espainiako Txapelketan ere aritu da».

Kadeteen artekoak, onenak

Jokoren bat nabarmentzeko garaian, kadeteen artekoa izan da: «Maila handiena haiek erakutsi dute. Ladis Galartza deitu genuen (Galartza III.aren semea) jubeniletan aritzeko, baina ez dago buruz burukoan ohituta, eta azkenean ez zen etorri».

Ikusleei dagokionez, final laurdenetan azaldu da jende gehien, baina «gure ustez, beste urteetan baino makalago ibili da». Txapelketari dagokionez, berriz, «ez da gauza berezirik gertatu; nahiko ondo joan da, astero jokatu dira partidak eta aparteko arazorik ez dugu izan. Pilotariak ere ondo erantzun dute».



Nierebai. Nierejoangonaiz re. Kontuzaharrak berrituko e. Nierejoatensaiatukonaiz atekoasmad gunaki tuK
Ni pozik joango naiz

Buztina Taberna

- Eguneko Menua
- Plater Konbinatuak
- Otartekoak

Irailaren 10ean 19:00etan inaugurazioa
San Juan, 6 • ANOETA • 943 65 14 92

Ondo pasa Jaietan!

EDARITEGIA
Egarrri

ERNIOBIDEA, 7 **ZIZURKIL** Tel.: 943 69 62 57

BELAUNTZA ▶ AZPIEGITURAK

Ur hornikuntza sare berria onartu du Foru Aldundiak

Lanak burutzeko 967.000 euroko aurrekontua eta 12 hilabeteko epea dute

ASIER IMAZ

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Garapen Iraunkorrek Departamentuaren eskariz, Belauntza urez hornitzeko proiektua onartu duela jakinarazi du, «herri onurakotzat» jo duen proiektuan.

Eusko Jaurilaritzari obra presakotzat deklaratzeko eskatzea ere erabaki du Foru Aldundiak. «Lanek 967.000 euroko gutxi gorabeherako aurrekontua edukiko dute eta gauzatzeko epea berriz, hama bi hilabetekoa izango da». Proiektua eta enkanteko tramiteak egin eta gero, «2008ko udaberrian hasi eta 10 hilabeteko epean» amaituko direla azaldu dute.

Proiektuaren helburuari dagokionez, «alde batetik, Tolosaldeko udalerrri honen ur hor-



Belauntzako ur depositu berria. A. IMAZ

nidura hobetzea da, lehorte garaietan ur etorrera urria izaten baita; eta bestetik, uraren kalitatea hobetzea». Proiektuak Ibarra ur-biltegiko urarekin

Belauntzako hornitzea aurreikusten du; «balkada bidez egin beharko da, desnibelari aurre egiteko, eta 3.226 metroko hodi bat erabiliko da». Bil-

bidea Leaburu ur-biltegitik ere igaroko dela azaldu dute, «gerora begira Leaburu eta Gaztelu ere hornitu nahi baitira. Ibiurko presa izango denaren hornidura sareari lotuta egongo da azpiegitura berria».

Gipuzkoako Foru Aldundiaren esanetan, «obra hori 2004-2009 urtealdian azpiegitura hidraulikoak egiteko Gipuzkoako Ur Kontsultazioarekin izenpetutako lankidetzaz hitzarmenean aurreikusitako jardueretako bat da».

Azkenik Belauntzaren egungo egoera azaldu dute: «307 biztanle ditu eta ur hornidurarako bi sare independente dauzka. Batek industrigunea hornitzen du, besteak, berriz, hiriguneko eta landa inguruetako etxeetako kontsumoa. Bi sare horiek hiru errekatatara seipuntutatik hartzen dute ura».

IBARRA ▶

Zaborraren ordainagiriak kobratuta

Ibarra Udalak jakinarazi duenez, herritarrei hilabete honetan 2007. urteari dagokion zaborraren ordainagiriak kobratuko dizkie. Arestian aipatutako epea igaro ondoren, bide exekutiboak kobratuko direla ere jakinarazi dute, «%20ko gainera gaituz». Ordainagiri horiek edozein kutxa edo bankutan ordaindu ahal izango dira.

LEABURU ▶

Arrospe bigarren Ordizian

Anjel Arrospe bigarren geratu zen herenegun Ordizian jokaturako Aizkolari Txapeladun Ligako jardunaldi berria. Leaburuarrak Nazabal eta Arria Va izan zituen arerio. Lehen bi probetan nagusi izan bazen ere, Nazabalek zutika, arinka eta erdi luzetara minutuko tartea atera zion Arrosperi.

IBARRA ▶ GASTRONOMIA

III. Euskal Herriko Piparraren Lehiaketa hilaren 23an

Xepla Elkarteak hirugarren urtez jarraian antolatuko du Ibarra Azokaren barnean

A. IMAZ

Xepla elkarteak Euskal Herriko Piparraren Lehiaketa Gastronomikoa antolatuko du hilaren 23an, igandean. Xeplak antolatzen duen hirugarren aldiz izango da aurtengoa eta Ibarra

Azoka berezian, *Ibarra Azoka eta Piparra* deritzaien barnean ospatuko da.

Parte hartzeko lehiakide bakoitzak derrigorrez bi plater prestatu beharko ditu. Alde batetik, *Piperrada* prestatu beharko da, Ibarra Azoka

nahita ez sartuz, eta bestalde Ibarra Piparrak egindako sei pintxo, denak berdinak egin beharko dira.

Plater bakoitzeko irabazleak Txapela eta 200 euroko saria jasoko ditu. Bigarrenak eta hirugarrenak berriz, 150 eta 120 euro jasoko dituzte orogarriarenkin batera.

Izena emateko epea hilaren 18an amaituko da eta edozein galdera edo argibide jasotzeko, honako helbide elektronikora idatzi beharko da; xepplajke@hotmail.com. Horretaz gain, bi telefono zenbaki ere eskura jarri dituzte; 660 392331 (Fermin Arregi) edo 679 238784 (Jaione Bengoetxea).

IBARRA ▶ ELKARTASUNA

Salgai Ibaratik Misio Taldearen postalak

A. IMAZ

Ibaratik Misio Taldea, 1997tik hainbat ekintza burutzen ari da hirugarren munduko lau herrialdeetan martxan dituzten hainbat proiektu bultzateko diru-sarrerak lortzeko asmoz. «Gure lankidetzaren ondorengo herrialdeetara zabalitzen da: Santa Rosa eta Baba (Ekuador), Hal-Hal (Eritrea), Suyapa (Honduras) eta Gujerat (India)». Proiektu hauek alor oso ezberdinetakoak

dira, hala nola, emakumearen promozioa, jangelak, erabileraren anitzeko gelak eta etxebizitzaren eraikuntza, botiken erosketak eta banaketak, haurrak besoetatutzea, alfabetazioa eta hezkuntza. Batez ere haurren eta emakumeen egoera hobetzera zuzendutako proiektuak dira, «hauek baitira herrialde azpigaratueta kaltetuen dauden talde sozialak». Bigarren urtez, euro batean postalak jarri dituzte salgai diru-laguntzak biltzeko.

Donostialdeko enpresa batek AGENTE KOMERTZIALA BEHAR DU GOIERRIN eta DONOSTIAN - ERREFERENTZIA: 07-AGK

Eskaintzen da:

- Etorrizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Merkataritza kontratua.
- Soldata interesgarria.
- Beste lan komertzialekin bateragarria.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea

Kontuan hartuko da:

- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.

Curriculum Vitae zehatza bidali irailaren 20 baino lehen. gizabaliabideak@jarduna.net
HELBIDE ELEKTRONIKORA. Gogoan izan erreferentzia zehaztea

hitza

Praktikak HITZAn

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioa lizentziatutako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali helbide hauetara:
Araba etorbidea, 5 behea- atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

Talleres

ARRASTOA S.L.

Jai Zoriontsuak izan!

Ernio bidea, 25. Poligonoa 35. Pabillioia
Posta kutxa 61
ZIZURKIL

Tel.: 943 69 44 41
Fax: 943 69 41 02

LEITZA ▶ FUTBOLA

Aurrerak igandean jokatuko du denboraldiko lehenengo partida, Barañainen

Denboraldi osoan zehar 30 norgehiagoka jokatuko dituzte leitzarrek, 16 futbol talderen artean eta azkenekoa 2008. urteko apirilaren 20an jokatuko dute



Aurrera taldeko futbolariak asteazkenean kiroldegian entrenamenduko atsedenaldi batean. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Asteburu honetan hasiko da lurraldekako goren mailako liga denboraldia Nafarroan zehar jokatuko diren 16 partidekin eta Aurrera Lagunak taldearen aurka lehiatuko da, Barañainen. Partidak asteburu

honetan hasiko diren arren, Aurrerako jokalariek jada 5 aste daramatzate gogor entrenatzen.

Erronka berri honetan aurretan Aurrerak bi entrenatzaile izanen ditu, Jose Luis Arrizurieta gain, Iruñeko Migel Bikuña ere entrenatzaile lanetan

ariko baita. Azken honek adierazi duenez, «garaiz hasi gara entrenatzen eta denboraz ongi gabiltza». Leitzako taldeak aurretan zehar izan ditu: Ibai Elizalde, Iñaki Zabalo, Xabier Romero, Iñaki Antolin, Mikel Barberia, Arkaitz Bengoetxea, Antton Gomez eta Eneko Go-

rostiagak ez dute Aurrerari jokatuko eta hauen ordez Aurrerak beste 7 jokalar berri izanen ditu: Iñigo Astiz, Haritz Elizondo, Imanol Urkiola, Antton Urkiola, Eden Gastearena, Luis Lasarte eta Joseba Mutuberrria.

Joan den denboraldian mailaz igo ondoren, aurtengo taldeak «indartsuagoak» direla azaldu du Bikuñak. «Teknikoki kalitate handiagoa duten taldeak dira, dudarik gabe».

Aurreraren egoera

Arrizurieta entrenatzaileak taldeak jasan dituen bajen ondoren Aurreraren osasunaren inguruko gogoeta egin du. «4 baja garrantzitsu izan ditugu, hauetatik 3 titularrak izan zituzkeen, eta hori nabaritu eginen da». Aurreko denboraldian Berriozarko taldea leitzarrentzat ligako aurkari nagusia izan zen, azkenean hauei irabaztea lortu zuten arren. «Aurretan talde guztiak Berriozarren paretsukoak dira», dio Arrizurieta. «Partidaz partida ikusi-

ko dugu nola hasten garen, eta gero, gauzak nola dihoazen ikusi ondoren, beste zerbaitean pentsatzen hasiko gara».

Mailaz igotzearekin futbol taldeen kalitatea ere altuagoa denez partidak ezberdinak izanen dira. «Maila honetan partida asko tontakeriren bat eginenez gero erabakitzen dira, konzentrazio falta edo horrelakoenatik. Horrelako gauzek eragin zuzena izaten dute emaitzean», dio Jose Luis Arrizurieta.

Erronka berri honen aurrean Leitzako taldea «gogotsu» dagoela gehitu du. «2000. urtean ere igo ginenean ilusioz hasi ginen, gero liga aurrera joan ahala batzutan ilusioa galdu genuen arren, baina aurretan berriro gogotsu gaude».

16 futbol talde

Maila honetan 2 talde daude eta bakoitzean 16 talde lehiatuko dira denboraldi osoan zehar. Lehenengo partidak igandean honetan hasiko dira. Lehenengo itzulia abenduaren 23an amaituko da eta urtarrilaren 6an bigarren itzuliarekin hasiko dira. Apirilaren 20an amaituko da aurtengo denboraldia, 30 jardunaldi eta gero.

Hauek dira lurraldekako goren mailan Aurreraren multzo berean lehiatuko diren talde guztiak: Amaya, Subiza, Lagunak, Aurrera, Gares, Avance Ezcabarte, Pamplona, Iruña, San Cristobal, Cantolagua, Lagun Artea, San Jorge, Gazte Berriak, Ilunberri, Urrozterra eta Amigo.



Jose Luis Arrizurieta, Migel Bikuña eta Juan Karlos Mister. N. GARZIA

AURRERA ▶ 2007/2008 DENBORALDIA

JOKALARIAK

Atezainak. Antton Abruzza eta Iñigo Astiz.

Defentsak. Iker Aizagirre, Unai Olano, Mikel Azpiroz, Iban Urriaga, Iñigo de Karlos,

Garikoitz Etxegarai, Iker Bengoetxea, Eden Gastearena, Luis Lasarte eta Joseba

Mutuberrria, Haritz Elizondo.
▶ Etxegarai lesionatuta dago eta ez du jokatuko.

Erdilariak. Dani Alvarez, Xabi Urriaga, Eneko Andueza, Joanes Zeballos, Hegoi Bengoetxea, Imakol Urkiola.

Aurrelariak. Jon Arangoa, Iñaki Galañena, Antton Urkiola.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Tel.: 943 65 56 95

AGENDA ▶

JAIAK

Alkiza. 16:00etan, haur jolasak; 21:00etan barrikotea; ondoren, Laket taldearekin erromeria.
Bedaio. Patata tortilla lehiaketa izango da 20:00etan, sagardo dastaketa ondoren. Erromeria Imuntzo eta Belokiren eskutik, eta 04:00etan txokolata.
Elduain. Ama Birjinaren Jaiotzaren jaiak: 17:00etan suziria; ondoren puzgarriak eta zezen mekanikoa; ondoren txokolata; 23:00etatik aurrera, Jalisko Banda talde nafarraren emanaldia.
Lizartza. 18:00etan, pilota desafioa Amezketeta eta Lizartzaren artean; 20:30ean Karobixulorekin kalejira buruhandiez alaituta; 21:30ean herri afaria; 00:00etan txupinazoa herriko lau presoen omenez eta danborrada; ondoren, Kloratita eta Josta taldeen kontzertuak.
Tolosa. Izaskun auzoko jaiak: 18:00etan, txupinazoa eta txokolata; 19:00etan, buruhandiak; 21:00etan, zahagi ardoa auzoko lokaletan; 23:00etan, kontzertua Lauroba eta In The Kitxen taldeen eskutik.
Zizurkil. Elbarrenako jaiak: Txan Magoa 11:00etan; 12:30ean buruhandiak eta jubilatuen jolasak (toka eta igela); 14:00etan jubilatuen bazkaria; 17:30ean zezen txikiak eta poniak haurrentzat; 18:30ean Caricatur; 19:30ean Hortzmuga Teatroaren Klaketa kale antzerkia.

DEIALDIAK

Tolosa. Udaberri dantzari taldearen euskal dantza ikastaroak hilaren 14ean eta 15ean hasiko dira. Informazioa, ostiralean Udaberriren egoitzan (Igaralde kalea) 18:00etatik 20:00etara.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
 ▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Europara begira

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Eider Elduairen tolosarrak Arles herriko argazki ederra bidali du lehiaketara; Iban Salsamendik, berriz, Porto aukeratu du udan



PORTO (PORTUGAL) ▶

Iban Salsamendi (Tolosa)

Argazki ikusgarri hau bidali digu Ibanek, eta ondorengo azalpena eman digu: «Abutzuko azken astean Portugal aldean egon ginen egun batzuk igarotzen. Hain zuzen ere, iparraldean egon gara, Viana do Castelo herrian eta Porto hiri handian. Esaten dutenez, Portoko jendeak egiten du lan Lisboakoak ederki bizi daitezen, baina guri ez zaigu iruditu hori horrelakoa denik, Porto polita bezain berezia baita. Gainera, bertan Douro ibaian urtero egiten duten Red Bull Air Race hegazkinen arteko txapelketa ikusgarriaz gozatzeko zortea izan genuen, argazkian ikusten den bezala».

ARLES (FRANTZIA) ▶

Eider Elduairen (Tolosa).

Eiderrek argazki eder hau bidali digu, azalpena eta guzti: «Abutzuan ateratakoa da, Estatu frantses hegoaldeko Arles herrian. Bertan uda oro argazkilaritza buruzko topaketak egin ohi dituzte eta besteak beste, hainbat erakusketa izaten da ikusgai. Honako argazki hau bere burua JR bezala ezagutarazten duen argazkilaria da; Pariseko auzo baztertuaren erretratuak atera eta ondoren formato handian auzo burgesetako hormetan erakusteko. Gauza bera egin zuten Palestina eta Israelgo jendearen erretratuekin ondoren, denak Zisjordaniako harresian erakusteko».



AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Euskal Herriko

onddoen gida liburua

doan!

Aranzadi Zientzia Elkartearen esker, Euskal Herriko 110 perretxiko ezagunen zerrenda ekarri digu liburu honetara. Perretxikozeleentzat gida ezin hobea: perretxiko bakoitzaren ezaugarriak, nola bildu, gordetzeko teknikak, intoxikazio arriskuak...

Euskal Herri osoko 110 perretxiko ezagunenak

- 🍄 110 perretxikoak banan-banan: ezaugarriak, habitata eta jangarritasun maila
- 🍄 Perretxikoen mundura bidaiatu
- 🍄 Perretxikoak egoki biltzeko azalpenak
- 🍄 Intoxikazioen aurrean zer egin
- 🍄 Perretxikoak kontserbatzeko metodoak

Irailak 8, larunbata
kartilla + 1. kupoia berriarekin

berria

berria